

HIRU INURRITXO ELURPEAN

Oihane Fernandez Mendia¹

Gaur inoiz baino goizago heldu da Pello etxera. Azkenaldian lan handia omen daukate bulegoan, eta Sonia ohe barruan sartuta dagoenerako heltzen da eskuarki haien bi logela eta komuna ñimiñodun zazpigarren pisuko etxera. *Gizarajoa*.

Gaur gauean, aldiz, Pello Soniak afariko azkeneko arrautzopil sardexkada aho barruan sartua due-larik zabaldu du etxeko ate pisutsua. Haren larruzko maleta eskutan eta nekeak itoarazitako aurpegia jantzirik. *Ez naiz gose soil bat eta dutxara sartu da zuzen-zuzenean. Ez muxu azkarrik, ezta laztan iheskorrik ere. Hiru hitz bakan, hiru soinu lazgarri. Hiru ostikada Soniaren sabelaldera amiltzen. Bat, bi, hiru.*

Soniak, orduan, ohean etzanda dagoen bitartean, biak elkarrekin afaldu zuten azken gaua gogoratze ahaleginak egin ditu. Esku ahurrak lokien kontra bildu eta begiak zerratu egin ditu. Pelloren begirada kandelen argi xumepean. *Ez, ez da inondik ere ageri.* Mingainez mingain jolasti jira-biraka dabilen marrubi zantarra. *Ez, ezta hau ere.* Ezpain ertzetik muxu batez garbitutako ogi apurrak. *Ez. Ezer ere ez.* Gau hartan, Soniari begiak itxi zaizkionerako, ezin izan du azken afari iheskor hura haren buruan erreproduzitu, birsortu. Gehiegi begiratu beharko luke atzera, gehiegi zulatu. Eta hau nahikoa izango ez baldin bazen, ezin izan dio Pellori galdetu; oraindik komunean jarraitzen baitu. *Gizarajoa*.

Soniak azkenaldian Pello inoiz baino urrunago sentitzen du. Maitaleak baino pisu kideak ematen dute, etxe hartako korridore bihurritu hartan ezku-taketara jolasten diren ezezagun bikote birtuala.

1. XXXIII. "Erretereria Hiria Ipuin Lehiaketa"ren euskara modilatitatearen irabazlea. Ereintza Elkarteak antolatua, Erretereriako Udalaren babesarekin.

Soniak ez daki elkarri loturik mantentzen dien hura zer izan behar ote den. Herdoildutako katea, edota hari fin-fina den. Baina berdin dio. Argi duena zera da, benetan hauskorra izan behar duela. Eta hari fin hura ikusten du, ukitu ere ukitzen du eta orduan, tximeleta gris nano bat begiztatzen du urruntasunean hegaka. Apurka-apurka harira hurbildu egiten da eta bat-batean bere hankatxo mengelak hari fin haren erdialdean pausatzen ditu. Segundo bakar bateko kontua da, gutxiagokoa apika, eta *kras!* Argi dago. Ez da beste azalpen posiblerik. Maitasunak, grinak eta ilusioak momentu zehatz batean elkarrekin hanka egin zuten. Itzaletan bilduak, motxilak harriz beterik oin-puntetan, haiek biak telebistari sozeuden bitartean.

Duela aste batzuk, Pelloren zain zegoen bitartean, Soniak telefilm txar horietako bat ikusi zuen telebistan. Antza, telefilmeko protagonista zen emakume gazte ilegorri eta pinpirin bat, bere senarra beste emakume batekin ote zebilen ikertzen hasia zen. Laneko bilera etengabeak, perfume usaina, gauaren erdiko telefono dei misterioitsuak... Ikertu eta baita egiaztatu ere. Telefilm tentel bat besterik ez izan arren, momentu hartan Soniaren buruan zerbait martxan jarri zen, etengailu automatiko moduko bat. Eta honek guztiak proiektorea martxan jarri zuen: Pello etxera berandu heltzen, haren hoztasuna, etxera ailegatu orduko hartzen zituen dutxa amaigabeak. Pentsamendu itogarri hauekin lokartu zen gau hartan Sonia. Berea bihurtutako haien ohe hartan, bakar-bakarrik berriro ere.

Sonia lanetik etxera heldu eta postontziko eskutitz eta propaganda guztiak eskuan dituelarik hartu du igogailua. Zazpigarren pisua. *Home sweet home*. Zapatak kendu, telebista piztu eta sofan eseri da postontzian jasotako kartazal guzti horiei arreta eskaintzeko gogo gutxirekin. Bankua, bankua,

propaganda, bankua, propaganda, propaganda eta telefono faktura bat. Ez da bere sakelakoarena, Pellorena baizik. Orduan, gutxinaka-gutxinaka haren aurpegi osoa argiztatzeko gai izan den irribarre maltzur bat agertu zaio ezpainetan emakumeari. Argi dauka zer egin.

Badaki ez dagoela ondo, baina ezin izan dio barrutik datorkion grinari inolaz ere eutsi eta kartazaleko papera mugimendu azkar batez urratu du, muker. Izan ere egia berarekin zorretan dagoela sentitzen du. *Noski baietz*. Koloretako bi errotuladore hartu ditu orduan. Arrosa eta beltza. Eta begien aurrean azaldu zaion zenbakiz betetako orri zifratua xehetasunez irakurri egin du. Zenbaki labirintoan barrena dago orain. Arrosaz bere telefono zenbakia markatu du eta beltzez, ordea, orrian zehar maizegi agertu den beste zenbaki arrotz hura. Koloreen sinbologia argia. Soniak bere lantxoak bukatu duenerako orria beltz bilakatu da. Beltza leku guztietatik. Itsaso beltz bat uharte arrosa gutxi batzuek zipiztindua. Sonia bat-batean irla purtzil horien antzera sentitu da orduan. Txiki, ahul eta marea beltz hartan itotzear.

Orduan, bere gorputz jeltatu hartara epeltasun pixka bat ekartzearen Soniak bere ahizpak bere azken urtebetetzean oparitutako ezki-ur bero bat prestatu du. *"Kamamila-ura Tibeteko marrubi basatietekin"* irakurri daiteke pakete distiratsuan. Edari buruiritzia. Zangada motz baina jarraituz edalontzia hustu egin du. Han behean, sakontasunean, ustezko Tibeteko marrubi hazi bakan batzuk utzi arte. Pixka bat lasaitu denean telefono arrotz hura bere sakelekoan *Beltza* izenpean gorde egin du. Ez du probarik nahi. Faktura madarikatu hori txiki-txiki egin eta *Bizkor* auzotik paseatzera atera denean, etxetik urrutiegi dagoen kaleko paperontzi bakarti batean bota du. Badaezpada. *Ez du probarik nahi*.

Soniak ondorengo ordu luzeak bere bizitza kolokan jartzen ari diren bederatzi zenbaki horiei begira igaro ditu. Zenbaki guzti horiei so. Haien jabeari buruzko informazio pixka bat xuxurlatzeko gai izango balira bezala. Pistaren bat, euskarriren bat. Eta arratsalde partean, laneko komunean dagoela, sakelekoa poltsikotik atera eta *Beltza* bilatu du aurpegi eta izen zehatz eta definitu bat duten agendako telefono-zenbaki ezdeus eta karkailen artean.

Han jarraitzen du, ez da inora joan. *Bea* eta *Bittoren* artean naretsu, patxadatsu inoren bizitza

desegiten ariko ez balitz bezala, harro. Botoi berdea sakatu du orduan. Orain ez dago atzerabiderik. Ez daki zer esan, ez daki hitz egingo duenik ere, ezta telefonoaren bestaldean nor espero duen. Jakin ere egin gabe bizitzen ari den bere benetako bizitza ezagutuko ote duen. Telefonoak lau aldiz jo du. Lau ostikada melodiko. Sonia eskegitzekotan egon da, baina bat-batean zifra guzti horien konbinazioak ahots batean bilakatu dira.

Bai, esan?, indartsu eta gozo bat.

Soniak telefonoa eskegi du, ez du gehiagorik entzun nahi. Emakume horren ahotsa entzutean, bat-batean bere susmo zoro guztiak egiazko bihurtu dira. Eta denbora gelditu egin da, munduak bira emateari utzi dio. Zorabiatu ere egin da. Eta komunean jesarrita jarraitu du betiereko segundetan zehar. Ez ditu bulegotik datozen kanpoko ahotsak aditzen, urrunean akaso. Bere barneko oinazearen oihartzuna besterik ezin dezake entzun. Posible ote da ahots simple batek zure bizitza errotik desegonkortzeko gai izatea?

Telefonoaren bestaldetik etorritako berunezko ahotsa orduan bere buruko *okupa* bilakatu egin da. Baina aurpegiak gabeko errentaria da eta Sonia begitarte hori milaka aldiz eraikitza jolastu da orduetan zehar. Ilegorria da. Pellok beti izan ditu ilegorriak gustuko. Betiko kontua. Desberdina beti izan ohi da erakargarria, exotikoa. *Zerri zikina!* Zenbatetan pentsatu ote du Soniak bere ile beltzaren arrunta suaren kolorekoa bihurtzea? Ezingo luke asmatu. Baina ez da inoiz ausartu. Bere papera maitale ilegorriarena baino etxean zain geratzen den bikotekide beltzaranarena omen da, antza. Pertsona bakoitzak patu bat du.

Ilargiaren argi urdina sukaldeko leihoaren bestaldean agertu denerako, Soniak ez du zer egin behar duen erabaki. Milaka posibilitate daude, kartzelarekin ordaintzen diren horietakoak ere bai. Pello etxera heldu bezain pronto bere indar guztiekin oihukatuko lioke aurpegira. Ozen, bere maletatxo irrigarri hura eskuetatik zintzilik duelarik, horixe da bere barrenak aholkatzen diona. Baina bere buruak, aldiz, itxaroteko esaten dio. *Oraindik ez da momentua, oraindik ez*. Eta horrela egin du.

Pello etxera heltzean ohiko legez dutxara sartu da. *Bai, garbitu zaitez txerri alena, baina xaboiak ez ditu zure bekatuak garbituko!* Eta Soniak

logelako zoruan botata utzi berri dituen praken poltsikoetan ez dakien zerbaiten bila hasi da. Ez du maitasunezko mezurik topatu, ezta luxuzko hotel bateko konturik ere. Ez. Hori baino hobea den zerbait. Pelloren sakelekoa topatu du, lehen mailako informazio-iturri bikaina.

Soniak ez du bere burua ezagutzen. Han, lurrean eserita, ilunpean, begi bat komuneko atean eta bestea berea ez den sakelekoan buru-belarri sartuta duelarik. Baina berdin dio, egia jakin beharra dauka; izan ere Pello da arauak hautsi dituen bakarra.

Telefonoa piztu eta jasotako mezuetara jo du. Gutun azal horizatua altxorra begitandu zaio. Eta han topatu du topatu nahi ez zuen hura. *Goza ezazu* eta argazki lizun horietako bat. Emakume ilegorri gazte baten gorputz biluzia. *Ilegorria, banengoan ni...* Ez zaio aurpegia ikusten, baina gorputz zuri eta perfektu horretan tatuaiak ageri da. Lepotik behera doazen hiru inurritxo beltz. Hiru inurri txiki elurretan galdurik.

Atoan dutxako uraren zarata eten egin da eta Soniak kontu handiz sakelekoa prakaren patrikan sartu du berriro ere. Ez du nahi Pello konturatzea bere gauzetan norbait aritu dela ikusmiran. Dena bere lekuan utzi du, prakan zehar hedatzen den zimur bakoitza, hauts izpi oro. Badaezpada. *Ez du probarik nahi.*

Gau hartan Sonia amesgaiztoen artean igerian ibili da gau osoan zehar. Argazkiko gorputz haren zurtasunarekin egin du amets eta baita hau guztiz estaltzen zuten milaka inurritxoekin ere. Milaka eta milaka inurritxo. Inurritxoak edonon.


Gauaren erdian esnatu da eta Pello bere ondoan zurrungaka sentitu du, nasai. *Zerri zikina!* Soniak ez du ordutik aurrera gau osoan lorik egin, hori posible ote bada behintzat.

Gaur Sonia lanetik irten ostean lagunekin joan da garagardo bat hartzera. Baina ez da garagardo bakarra izan. Izan ere inurri horiek guztiak garagardotan itotzen saiatu da. Banan-banan, kru-delkeriaz, zomorro beltz ñimiñoak bitsaz betetako itsaso horixkan desagertzen ikusi dituen arte. Lagunak gutxinaka-gutxinaka haien etxeetara desagertuz joan dira, ilegorriekin engainatzen ez dituzten haien bikotekideen aldamenera. Eta Sonia azkenik bakarrik geratu da, siluetaz betetako taberna zulo bateko barran jesarrita. Ez daki nola egingo dion aurre honi, ez daki aurre egiteko gai izango ote den ere. Apurkor sentitu da, txiki, hutsal, inurri. *Beste garagardo bat, arren!*

Seigarren garagardoa bere aurrean agertu baino lehen, taberna hartako barran silueta berri bat agertu egin da. Soniak ez du hitz egiteko gogo handirik, gau hartan elkarrizketarako dohaina ere galdua duela esatera ausartuko litzateke. Bakardadeak beldurtzen duen modu bertsuan desiratzen du. Ez daki bakarrik egon nahi duen ala Heavy Metaleko kontzertu jendetsu baten erdi-erdian. Baina berdin dio, izan ere ez baitu hautatzeko aukerarik izan.

—Bakarrik al zaude? —galdetu dio ezezagunak, ardo kopa bat ezpainetara eramaten duen bizkitartean.

—Bai, erantzun dio Soniak, motz.



ARANTXA.

Ilustrazioa: Arantxa Paskual Elustondo.

Ezin izan dio hori baino gehiago esan. Nahikoa izan da, gehiegi agian. Izan ere, ez du uste inori inoiz egia borobilagorik bota ote dionik ere. Aspalditik du bakardadea lagun. Pelloren istorio hau baino lehenago, hura ezagutu baino askozaz lehenago, seguruenik. Egun hura gogoan du oraindik, emakume bihurtu aurretik, neskatxa txirikordadun bat besterik ez zela. Aita herriko kafetegi batean bere ama ez zen emakume ilehori baten besotik helduta ikusi zuenean. Orduan konprenitu zuen dena eta orduantxe hartu zuen erabakia Sonia gazteak. Bakardadea egun zehatz batean hautatu egin zuen. Egun hartan bertan. *Barraskiloen egunean*. Euria ari zuen eta barraskiloek haien etxolak espaloi bustietatik irrastatzen zituzten kementsu. Hamarnaka. Ehunaka barraskilo. *Barraskiloen eguna*.

—Ni ere bakarrik nago ez badizu axola —eta erantzunik itxaron gabe bere ardo kopa Soniaren garagardoaren ondoan kokatu du ezezagunak.

Bakardadea. Hitz madarikatu hori berriro ere. Soniak ez daki bere barneko samina zehatz-mehatz nondik datorkion. Ez daki Pelloren traizioa den, harenganako konfiantza galera, edota bakardadeari beldur dion. Horregatik eman zion bizkarra, horregatik egin zuen ihes. Bakardadea hitz larriekin. Momentu hartan amorrua oin-puntetatik hazi zaio, gorantz egin dio azkartasunez, belaunetik gora, gerritik gora Telefonoa itzali du, Pelloren kontrako eraso bortitza izango balitz bezala, *gaurkoan ez dizut afaririk prestatuko maitea*, ostikada gogorra bere ipurdi madarikatuan! Orain ez dago Pellorentzat, ez dago inorentzat.

Garagardoek bere sentimenduen kutxari estalkia kentzen lagundu dute. Argi dago. Eta segundo batzuetan Soniari begiak guztiz lainotu zaizkio. Bat-batean, atzamar batek, bere begiek isuritako azken malkoa garbitu dute suabe, emeki. Eta keinu soil eta samur horrek Soniaren malkoak ur-jauzi bihurtu dituzte, ur-jauzi gazia masailetatik behera.

Bi ezezagun taberna-zulo batean. Garagardoa eta ardo beltza. Astearte gaua. Lurra zerrautsez betea. Bi ezezagun taberna-zulo batean elkar eza gutzen. Elkar deszifratzen. Elkar desafiitzen. Nork daki (...) Musu gozo bat ezpainetan, eman nahi ez diren, baina ematen diren horietakoak. Eta bi begirada. Ezpainetatik irteten ez diren hitzak ordezkatzeko. Milaka hasiera eta bide posible. Nork daki (...).

Bi ezezagunak taberna itxi arte egon dira bertan. Txepelkeriez solasean, ezeri buruz eta guztiari buruz aldi berean. Soniak ez du horrela sentitu den azken aldia gogoratzen. Desiratua sentitzen da, eta baita ausarta ere, berezi, boteretsua. Orain ez du ilegorria izan nahi, ez. Bere ile beltzaren arrunta maite du eta ez luke inoiz ere aldatuko. Ez du ilegorria izan nahi. Ez, ezta ilehoria ere.

Kale bakartiek bi ezezagun hordituak haren besoetan jaso ditu, kulunkatu. Baina etxera joateko goiz da, goizegi, beranduegi. Bost axola. Soniak badaki bere ohea gaur goizean utzi duen bezala jarraituko duela. Hotzegi, perfektuegi. Urrun gelditzen den egun hartan hartutako erabaki hura oihuka aurpegiratu. Barraskiloen egun hartan hautatutako bakardade hura seinalatuz. Baina gaur beste egun bat da, eta beste Sonia bat da. Egun hartan kaleak animalia likatsuz beterik zeuden; gaur, aldiz, espaloian ez da barraskilorik igartzen.

* * *

Txio-txio, txio-txio. Kanpoan txorien kantuak entzun daitezke, eta Soniak begiak ireki ditu. Bere aldamenen daukan gorputzaren epeltasuna senti dezake, bere sorbaldaren kontra puxika ero baten antzera puztuz eta hustuz. Gau osoa pasa dute elkarri besarkatuta, elkarri lotuta, korapilatuta eta horrela jarraitzen dute oraindik ere. Soniak ezin izan dio tentazioari eutsi eta aurpegia bere ohe kidearen ilearen artean sartu eta arnasa sakon hartu du. *Ummm* paradisia usain batean gatibu.

Soniak ohean buelta eman du orduan eta besoen artean zuen gorputza mugitzen hasi da, eztiki, leunki, emeki. Musuz osatutako bidezidor bat eraikitzen hasi da besotik, ipurditik, bizkarretik doan bidexka epela eta orduan, musu goiztiar horien artean, sorpresa gozo bat. Lepoaren atzeko aldetik gora doazen inurritxo hirukote esnatu berria.

Une hartan Soniari zerbaitek barrutik koska egin dio eta bere zorroa hartu du ziztu-bizian. Esku dardaratien artean hartu du sakelakoa. Agendan sartu eta B letraraino heldu da. Bertan aurkitu du bilatzen ari zen hura. Eta *Beltza* dagoen lekuan, telefonoa osatzen duten bederatzi zenbakiak zifraz zifra ezabatu egin ditu. Bederatzi, zortzi, zazpi, sei, bost, lau, hiru, bi, bat listo!

Badaezpada. *Ez du probarik nahi.*